

KONTROL MOZIOA

Udala partaidea den sozietateetan erabiltzen diren espazioak alokatzeko irizpideak direla-eta

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2015eko abenduaren 14ean Pertsonentzako Zerbitzuetako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Urtea amaierarekin batera ezaguna egin da TABAKALERAn antolatu den Urtezaharreko gau-festa. Bere promozioan erabilitako hizkuntza-irizpideekin izaniko arazoak tarteko, interpelazioa egin zitzaion zinegotzi ordezkariari Pertsonentzako Zerbitzuetako Batzordean. Bertan emandako informazioa iturri, zein ondoren jasotakoaren arabera, kezka berria sortu da ekipamendu honen espazioen erabilerari dagokionez.

Hala, horrelako ekimen baten antolakuntza erakunde publikoek bultzatzen duten kultura zentro batean egiteak ekarriko dituen kritikak jaso ditugu, interpelazioan azaldu genuen bezala eta, gaian arakatu ahala, segurtasunaren inguruan kezkak ere sortu dira, gai hau Eusko Jaurlaritzaren sail bereziaren menpe egon arren. Jarraian, urtezaharreko agurra ETBk grabatzeko akordioaren berri izan genuen prentsaren bidez, -oraingoan kobratu beharrean ordainduta- eta, festan suzirik erabilera gaueko ordu txikietan Egiako, zein Erdialdeko bizilagunen haserre biziak ekarri ditu, kasuren batean, susto ederrak barne.

Espazioak alokatzeko eta erabiltzeko erabaki hauen atzean arrazoi ekonomikoak izanik ere, TABAKALERA eraikinak egitasmo desberdinak biltzen ditu bere baitan eta eraikinaren kudeaketa sozietate publiko baten menpe dago: CICC SA delakoa. Sozietate horren partaide Udala izanik, Tabakalerak egingo dituen erabilera motak eta erabilera horiek erabakitzeko irizpideetaz hitz egitea ezinbestezkoa da. Are eta gehiago gure herritargoaren artean sortu diren kezkak ikusita eta Udalbatza osatzen duten zinegotzien artean agertu diren iritzi kontrajarriak entzunda.

Horiek horrela, hauxe da aurkeztutako

KONTROL MOZIOA:

.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari berma dezala, Udala partaide den TABAKALERAREN (CICC Sak kudeatzen duen eraikina) espazioak erabiltzeko eta alokatzeko irizpideak finkatu aurretik, neurriak hartuko dituela udal taldeen ekarpenak ezagutu eta kontuan hartzeko, Donostian dauden herritarren iritzi desberdinak islatuak gera daitezen.

- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal gobernuari berma dezala Udala partaide den Tabakalera zein bestelako eraikin edo entitateetan, bizi-lagunei eragozpenak edo kalteak sor diezazkieken ekimen orok arau guztiak bete ditzatela.

Donostian, 2015eko abenduaren 17an

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
EH BILDU udal taldeko zinegotzia